

I. — Iztegirako itz beñiak sortzen jardun degu.

II. — Iztegi beñiaren Bilboko irarlea atzerati-xamar dabilkigu, gurekin dituen lanetan. Lan abek lenbailen gure eskuan izan ditzagun, epe bat jañi bear zaio, bestelaz itunbena ezetsi.

III. — Eguskitza jaunak *tokamen* (partilla) zer esan nai duen esan digu. Beste itz batzuk iztegirako dartzki.

IV. — Ormaetxea jaunak beste itz batzuk ekañi dizkigu.

V. — Aita Intzak, bere anai Aita Etxalar-ek emandako itzak irakuñi dizkigu.

VI. — Lopez Conde jaunak ikeñaldi bat egin digu, ta iztegi beñitzaz luzaro itz egin.

Ta beste gai batzuk bigaramonerako utzi ditugu. Otoitz egin-da, amaitu degu batzañaldi auxe.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1934-ko Lotazilaren 21-an.

Batzar ontan aurrekoan aipaten diran jaun berak bildu dira eta ganera Etxegarai jauna. Otoitzez asi da.

I. — Aita Intzak, ekañi dituen itzak irakurtzen jañaitu du.

II. — Elissalde jaunak abere-izenak ekañi dizkigu, Bidaso-andik aldekoak.

III. — Altube jaunak lan bat irakuñi digu, Goros-

tiaga jaunaren beste lan bateri erantzupena: *Los artículos en euskera*.

IV.—Azkue jaunak esan digu irakurgai edo *nobela* bat argitaratzeko asmoz dabilela, bañan ortaratu bañolen, Euskaltzaindiari dakartzkio irakurgai ortan erabili nai dituen itz batzuk. Euskaltzaindiak, entzun ondoren, ontzat eman dizkio.

Ta beste gairik izan ez-da, amaitu degu, otoitzez, gure batzaraldi auxe.
